

BERRIGARA

79. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1992, urriak 9


UDALETXEA
BERRITEN
HASIKO DIRA
AZAROAN




**ASIER
ALTUNA**
"KIXI"
VENEZUELATIK
ETORRI BERRI,
HANGO
GORABEHERAK
KONTATU
DIZKIGU

**KIROLAK**

BERGARAN 150
GAZTE
INGURUK
JOKATUKO
DUTE AURTEN
ESKUBALOIA



**Bergaran Jaialdi
haundiak egiteko
toki barik**



kutxa

gipuzkoa
donostia kutxa

GINEKOLOGI KONTTSULTATEGIA

CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA eta RUIZ DK.ak

- Azterketa ginekologiko osoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
 - Haurnaldiaren kontrola
 - Txekeoak
- Bularreko gaitzen unitatea
 - Mamografiak
 - Antzutasuna
 - Antisorkuntza
- Menopausiaren tratamntua
 - Dietak
- Sudurra, eztarria, belarria
 - Analisi klinikoak



Zerkaosketa, 17 etxabea. ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18


TALLERES BERRIA, C.B.

Amilaga, 49 (Pol. Ind. San Lorenzo)
Teléfono 76 22 43
20570 BERGARA



Eraman itzazu

orain edo inoiz ere ez!



Orion.

Escort.

Ford-ek, Expo 92ko kotxe ofizial bezala, aukera paregabea du zuretzat. Erakusketa Unibertsalean erabilitako eta matrikula gabe

dauden Escort eta Orion kotxeak prezio o hoberenean eskaintzen dizkizu. Eskaintza mugatua da eta eskaeraren ordenaren arabera

banatuko dira, sotk-a bukatu arte. Unitate hauek BERRIA-n aurki ditzakezu. Ez gal du munduko prezio hoberenak.

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Babelea: Bergarako Udala

Laguntzailea:

Eusko Jaurlaritzza

Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Miren Josu Arrazola

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo
Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Miren Josu Arrazola eta Edurne
Arenaza. ☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua: Inaki

Eraña, Gorka Elorza eta Alex
Labaian

Kolaboratzaileak: Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel
Angel Elkorobereibar, J. M.
Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai,
Maripi Laskurain, N. Alzelai,
Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M.
Lizarralde, Monika Belastegi, M.
Elkorobereibar, Aitziber
Aretxaga, Ainhoa Bikuña eta I.
Sorondo.

Argazki laborategia:

B. Cantero, M. Leturia, J.A.
Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J.
Garzia, D. Santos, P. Retolaza,
Kifu eta Pol-Pol Mendizale
Taldea.

Komikia eta marrazkiak: Josu
Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa: Txantxangorri Taldea

Copyright:


BERRIGARA

Tirada: 3.000 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esa-
nen eta eritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo sailaren laguntza jaso du

PROTAGONISTAK

ARGAZKILARIAK

Pol-Pol Argazki Taldeko kideek beren nagusitasuna erakutsi zuten Elorrioko Argazki rallyan. Agustin Gurrutxagak lehen saria jaso zuen, Benito Cantero hirugarren izan genuen eta Jose Luis Feo eta Juan Tabares 4. eta 6. sailkatu ziren. Hilario eta Ricardo Azkargortak ere lehen 10en barruan sartzea lortu zuten.



DEIA

Bestalde, Benito Canterok 15.000 partaide ingururen artean Planeta Argazki Sariko 100 finalisten artean sartzea lortu du. Erabakia urtarrilean emango da jakitera eta saritan 5 milioi pta. ba-

natuko dira. Azkenik, 37 argazkilarik (tartean 17 bergarar) hartu zuten parte igandean Bergaran ospatutako Argazki rallyan. Epaimahaiaren erabakia urriaren 24ean ezagutaraziko da.

Benito Cantero Planeta Sariko finalean

ITURRI ONETIK

Diskoteka eske alkatearengana

Ale honetan, frontoia pelota partiduak ez diren beste ekitaldi haundietarako erabili ezin izanak azkenaldian gure herrian sortu dituen arazoetaz jarduten dugu. Lokalik ez omen daukagu Bergaran jaialdiak antolatzeko. Eta lokal eske alkatearengana jo zuen orain dela gutxi 15 urteko neska talde batek. Alkoholik gabeko diskoteka bat zabaltzeko eskaria egin omen diote neskatok alkateari. Udala, eskaria kontutan hartu eta gaia aztertzen ari da.

ESAN DUTE

"Cho Oyura igotzen nenbilenean oinetan hotza sentitu nuen, baina hala ere konjelazioek gauza kurioso bat badute, zein momentutan izozten ari zaren ez dakizula, alegia, ez duzu ezer sentitzen eta. Ustekabea, behin tontorra egin eta jetxi nintzenean etorri zitzaidan, behatzak gogor-gogor eginda neuzkala konturatu nintzenean. Orduantxe ohartu nintzen hotza baino gehiago zela".

AMAIA ARANTZABAL
Mendizalea
EL DIARIO VASCO

"Idiekin, akulua erabiltzea baino beharrezkoagoa da gozo-gozo tratatzea".

J.M. MARZANA
"ARIENTZA"
Idi probalaria
GEO ALDIZKARIA

ederTU

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK

Barrenkale 23

Tfnoa: 76 29 65

BERGARA

ELEKTRO

ARENAZA C.B.

Montaje elektrikoak,
automatismoak, e.a.

San Lorentzo 19,

Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43



EL SILENCIO DE LA SOSPECHA

Ostirala: 22.30.
Igandea: 17.00., 19.30. eta
22.15.



BEETHOVEN, UNO MAS DE LA FAMILIA

Larunbata: 17.30., 19.30.
eta 22.30.
Astelehena: 17.00., 19.30.
eta 22.30.
Asteartea: 19.30.



LA FRONTERA

Osteguna: 19.30.

Zinea

▼▼ 1.950.eko Ingalterran kokatuta, detektibe bihurtzea erabakitzen duen polizia baten istorioa dugu honako hau. Hasteko, bere emaztearen hilketari leporatuko diote eta bere errugabetasuna azaldu beharrean egongo da. **Laura San Giacomo** eta **Liam Nelson** protagonistak direlarik, azken honek interpretazio saria jaso zuen Cognaceko Zinemaldian.

▼▼ *Los Cazafantasmas* eta *Los gemelos golpean dos veces* filmetako zuzendariak bere azken komedia honetan produktore lanak egin ditu. Beethoven ez da musikoa ez. Txakur bihurri honek trastakeriak besterik ez ditu egiten eta protagonista bera dugun arren, zaila izango du inolako interpretazio saririk irabaztea.

▼▼ Filme txiletar honek, besteak beste, Berlinen Zilarrezko Artza eta Atzerritar filme onenaren Goya saria jaso zituen, eta pasa den astean Miarritzen ere saritua izan zen. **Ricardo Larrainek** zuzendurik, Hegoamerikako azken puntan txiletar talde baten nortasun faltak nola beren arteko harremanak sendotzera bultzatzen dituzten kontatzen zaigu.

Jaialdiak

▼ **Rock kontzertua:** DSH Etsaiak eta Censura taldeen emakundea **Soraluzeko Gaztetxean**. Larunbatean 22.00etan.

Erakusketak

▼ **Margo erakusketak:** Jose Ramon Elorzak **Kultura Etxean** eta Mikel Arroiabek **Naikari tabernan** urriaren erdiraldera arte.

Farmaziak

▼ **Larunbata 11:** Camacho.
▼ **Igandea 12:** Camacho.
▼ **Astelehena 13:** Puy.
▼ **Asteartea 14:** Guallar.
▼ **Asteazkena 15:** Estella.
▼ **Osteguna 16:** Mozos.
▼ **Ostirala 17:** Camacho / Ruiz (Arrasaten, gauez).

Ogia

▼ **Igandea 11:** Ogizun.
▼ **Astelehena 12:** Konde.

MINER Ardo onak,
ardoaak jakina

Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA



Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

Deiak

▼ **Mendi irteera:** Hilaren 18an Valderejo parkera (Araba) egun guztirako irteera.

Irteera goizeko 7etan Plazan eta izen-ematea Pol-Poleko bulegoetan.

▼ **1.942eko kintoen urrezko eztaiak:** Urriaren 18an eguerdiko 12etan meza Trinidadetan eta ondoren bazkaria Lasa Jatetxean. Izena emateko: 79 23 30 (Genaro Suinaga) edota 76 15 28 (Kandido Urriategi) telefonoetara dei egin urriaren 15a baino lehen.

Kirolak

▼ Futbola:

• *Bergara - Beraun* (2. mailako Errejonala). **Igandean** arratsaldeko 16.00etan Ipintzan.

• *Bergara - Aitzgorri* (Lehen mailako kadeteak). **Larunbatean** goizeko 11.00etan Ipintzan.

• *Bergara - Arrasate* (Lehen mailako infantilak). **Larunbatean** goizeko 10.00etan Ipintzan.


• *Bergara - Arrasate* (2. mailako infantilak). **Igandean**, goizeko 10.00etan Ipintzan.

▼ Futbitoak:

• *Futbito Txapelketa* astebukarri Kiroldegian.

Aukeran

▼▼ **Elosuko Mendiko Ganadu Feria** izango da igandean, urriak 12. Goizeko 9etan hasi eta sari banaketa ordubatetan egingo da. Orduerdi beranduago bertso saioa J.L. Gorrotxategi eta Sebastian Lizasoren eskutik eta 5etan Goenatxo II.ak 163 kiloko kubikoarekin marka ahalegina egingo du 10 minutuko tanda batetan.



▼ Saskibaloia:

• *Bergara - Altsasu* (Senior gizonak). **Larunbatean** arratsaldeko 18.30etan Kiroldegian.

• *Bergara - Gernika* (Senior neskak). **Larunbatean** arratsaldeko 20.30etan Kiroldegian.

▼ Pelota:

• *Calonge eta Oregi / Goñi eta Andueza VI.a.*

• *Unanue eta Beloki / Etxaniz eta Zezeaga.*

• *Iribarren eta Garaita / Gabilondo eta Alberdi III.a.*

Larunbatean arratsaldeko 16.30etan Frontoian.

• *Bergara - Oñati* (Alebinak, in-

fantilak eta kadeteak) **igandean** goizeko 11tan Frontoian.



Aitor Oregi

▼ Eskubaloia:

• *Bergara - Aloña* (Kadete mutilak). **Larunbatean** arratsaldeko 16.00etan Kiroldegian.

• *Bergara - Mollari* (Kadete neskak). **Larunbatean** arratsaldeko 17.15etan Kiroldegian.

LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03
BERGARA

IZADI
PILI GISASOLA

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

YAZKI

UME GAZTE

Neska eta Mutil

Irizar 3 Ibargarai 8
Tfnoa: 76 16 54 Tfnoa: 76 54 73

Informatu bai baina...

Kaixo Berrigarako lagunak:

Lehenengoz eskerrak eman nahi dotzuet egiten dozuen aldizkariarengatik, Bergarakoentzat beharrezkoa eta oso interesgarria dala. Bertan ematen dozuen artikulak oso interesgarriak dira, baina azken zenbakixan ikutu dozuen bi gaiez hitzegitea nahiko nauke. Zuzenago 92-9-25ean, 77. zenbakixan bi gauzatan fijatu nintzan. Bata soldaduzkako notizia batekin eta bestia Galde Debaldetaz.

Lehenengoz abisatzen dozue 1975ean jaiotakoak jakiteko epia hasi dala soldaduzkan alizatzeko.

Nik notizia honi bueltia emango notzan. Zergatik ez du abisatzen militarrek urtero bezala zabaldu dabela euskal gaztea harrapatzeko agindua eta oraintxe dala intsumiso eiteko momentua. Nahiz eta Bergarako udaletxia oraindik militarrekin kolaboratzen egon, eskatzen diot Berrigarai intsumiso egiteko eta soldaduskako berriei buelta emateko. Uste dot hau eskatza normala dala ikusiz Bergaran dagoen intsumiso kopurua.

Bigarrenari buruz, oso ondo iruditzen jat 5. mendeurrenari buruz galderak eitia, idatzi ziñuen bezala, baina orain dator koskia, 5. mendeurrenak bi aurpegi oso ezberdin dauzka eta galderak eiten badozue

honei buruz, zergatik ez bi aldetatik? Oso ondo gelditzen da jakitia Martinez de Iralak Uruguay "deskubritu" zebala, baina nola "deskubridu" zeban?

Zenbat indio hil zeban hauxe lortzeko?

Zenbat emakume indiar bortxatu zeban?

Zenbat ume euki zitxuan?

Zenbat urre harrapatu zeban?

Zenbat kultura zanpatu zitxuan?

Seguru nago galdera huek erantzutia askoz ere nekezaua izango dala, jende askok hau tapatu nahi dabelako.

Gutun honen bitartez eskatzen dot, eta ez dot uste bakarra izango naizenik, 5. mendeurrenaren bi aurpegiak emateko.

Bueno, besteik gabe, agurtzen zaitxuztet, eskertuz utzi dostazuelako lekutxo bat hau argitaratzeko.

Ondo pasau eta segi lanian.

A. G. Bilbao

Jarrai erantzuna

Jarraik izenpetuta Berrigararen argitaratu den kartari buruz.

Jaietako programa guztien antolaketan parte hartzen dute gazteak, eta beraiek arduratu izan dira rock taldeak herrira ekartzeaz. Aurten,

esaterako, 4 kontzertu izan ditugu. Kale antzerkiak ere egin izan dira, Pazkuetan, karnabaletan, e.a., eta beste 6 antzokitan.


Gazteak izan dira TTOPARAK, HAURREN EGUNAK, SAN MARTINAK, laster burutuko den UDAZKEN KULTURALA, eta antzerako beste jairen batzu antolatatu dituztenak, eta pozarren gaude gazte hauek orain arte egindakoaz eta baita aurrerantzean antolatzeaz dagoenaz ere, hau ez al da ba euskal lehengaia?

Kultur dinamizazioaren aldetik, Bergara dugu Gipuzkoan puntapuntako herrietako bat, 110 puntu baitaukagu 120ko gehienezko balorazioa kontutan harturik. Gazte guztiak parte hartuz gero, jaso daitekeen balorazioa seguraski. *Jarraik*, datu zehatzik gabe, gure herriaren alde lana egin eta honetaz harro dagoen gazte-jendearen kontra jardun du. Jarrera honekin ez diozue mesede haundirik egingo gure herriko kultura giroari.

Lanerako prest baldin bazaudete, Jai Batzordea asteartero biltzen da, Kultur Etxean, arratsaldeko 7etan, eta bertan gure herriko zenbait gai eztabaidatu eta denon artean soluziobideak topatzen saiatzen gara.

Kultur Taldeak, Jaiak eta Gazteria Batzordea

Tiira ba!



Josu Okino

Azaroan hasiko dira Udaletxea berrizteko lanak

EAJ, EE, PSOEren aldeko, HBren abstentzio eta EAren kontrako botoekin, joan den ostiraleko Plenoan Udaletxeko berrikuntzen adjudikazioa *Construcciones Amenabar* enpresari adjudikatzea erabaki ondoren, asteazkenean proiektuaren aurkezpena egin zen Udaletxeko Pleno Aretoan. Han izan ziren, besteak beste, Victoriano Gallastegi alkatea, Xabier Gallastegi Hirigintza Batzordeburua, Antxon Arbulu Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza eta Arkitekturako Diputatua eta Iñaki Aspiazu proiektuaren arkitektoa.

601 milioi pta.ko aurrekontuarekin, lanak azaroaren lehen astetik hasita datozen 21 hilabetetan burutuko dira. Victoriano Gallastegik "honako hau Bergarako historian inoiz egin den obrarik garrantzitsuenetakoa" izango dela adierazi zuen prentsaurrean. Eta zera gehitu zuen: "zerbitzu guztiak zentralizatu eta, bide batez, zentru historiko osoa hobetuko da. Espero dugu Diputazioa eskuzabala izatea proiektuaren finantzaketan laguntzeko".

Antxon Arbuluk, berriz, Diputazioak 278 milioi inguru emango dituela aurreratu zuen. Dirulaguntza hau hiru epetan emango da; 76 milioi pta. 1.992an, 155 milioi 93an eta gainontzeko 47 milioiak 1.994an. Bere hitzetan, "arkitektura eta ondarea den guztia berriz-



tatzeko erantzunkizuna daukagu eta beraz, honako lan batek Euskal Herri osorako ere berebiziko garrantzia dauka".

Zerbitzuak zentralizatu

Esan bezala, udal zerbitzu guztiak Udaletxean egongo dira obrak amaitu eta gero eta, Iñaki Aspiazu arkitektoaren azalpenaren arabera, Goiko Plaza eta Beheko Plaza eskilara batzuren bitartez elkartuko dira eta artxiboa eskilara horien azpian joango da. Udaletxeak trapezio itxura hartuko du (hortarako

oraindik hutsik dagoen zati bat beteko da Udaletxeak duen harri berdina erabiliz). Udaletxeari dagokionez, beheko plantan jendeak gehien erreklamatzeko dituen zerbitzuak kokatuko dira eta, gora joan ahala, jende gutxien jasotzen dutenak.

Fatxada, sarrera, eskilarak eta Pleno Aretoa (hemen estraduko zentzua gero itzuliko aldetara egongo da, Alkatzaren alboan burua duela) errespetatu egingo dira. Harrera tokian, idazkaritza, kontuhartzailtza, Udaltzaingoa eta Kirol Zerbitzua egongo lirake. Plenoko estraduren albo-

an, Alkatzeta, Idazkariaren bulegoa eta batzorde-gelak, bigarren solairuan Zerbitzu Teknikoak eta Gizarte Ongizatea, eta azkeneko pisuan, argia tetxutik sartuko dela, alderdi politikoaren bulegoak eta beste batzordeetarako gela.

Pleno Aretoan proiektuaren erakusketa ikus daiteke eta datorren astean zehar tekniko bat izango da bertan nahi beste azalpen eskeintzeko. Diputazioak, azkenik, obra honen garrantzia dela eta, proiektuaren inguruko liburu bat argitaratzeko asmoa duela azaldu zuen Antxon Arbuluk.

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa" 79 27 70 ARRASATE

MAKAILO

Makailau kazuelak
gertatzen ditugu

Ibargal 15

❑ **Odol emaleak**
Begarako Odol Emaleen Elkarteak beren Zilarrezko Eztaiak ospatuko ditu datorren igandean, urriak 18. Goizeko 11tan Meza Nagusia izango da San Pedron, ondoren Udal Bandaren kontzertua eta ordubietan bazkari herrikoia Kirodegian (2.300 pta.). Bazkalostean 25 donazio egin dituzten odol emaleei dominak eta diploma bana emango zaie eta hainbat zozketa ere egingo dira bildutako en artean.

❑ **Bertsotaria**
JARDUN Elkarteak antolatuta, datorren urriaren 24ean bertso afaria egingo da Alzasun Andoni Egaña eta Jon Sarasua bertsolariekin. Prezioa 2.500 pta. izango da eta izena emateko JARDUN Elkartera etorri edota bertara deitu dezakezue urriak 19a baino lehen. Alzasura joan-etorria egiteko autobusak egingo dira.



Neguko egonaldiak

Gipuzkoako Diputazioak hainbat egonaldi antolatuko ditu 65 urtetik gorako pentsionistentzat urritik ekainera bitartean Guardamar del Seguran (Torreviejatik 10 Km.ra). Fetxak honako hauek dira: urriaren 13tik abenduaren 14era arte, urtarrilaren 11tik martxoaren 31ra arte eta, azkenik, apirilaren 19tik ekainaren 30era bitartean. Urritik ekainera bitarteko eskakizuna egiten dutenek lehentasuna izango dute. Informazio gehiago nahi izanez gero, 900/43-43-43 telefonora deitu goizeko 9etatik ordubiak arte.

Bestalde, datorren as-

tean, elkarten arteko txapelketan jokatu ahal izateko kanporaketak izango dira Jubilatuetan; asteartean, hilak 13, tute txapelketa, asteazkenean mus txapelketa 8 erregetara eta ostegunean mus 10 erregetara. Txapelketa guztiak arratsaldeko 3 t'erdietan jokatuko dira eta izena emateko epea igandean, hilak 11, bukatuko da.

Gogoratu, azkenik, Jubilatuen Egoitzak urriaren 26an Gernikako Feriara joateko irteera antolatu duela eta izena emateko epea urriaren 15ean bukatzen dela. Bidaiak 3.000 pta. balio du.

❑ **Gabonak**
Gabonetan kaleak argi apaintzeko kable eta engantxeak jartzeari ekingo dio aurki Udalak. Hori dela eta, Kultura Zerbitzuak herritarren laguntza eskertuko luke eta, bidatez, denda, diruete eta hainbat enpresetara argien gastuak ordaintzen laguntzeko eskaria laister bialduko dutela jakin arazten du.

❑ **Oñatiko ferria**
Luis Gorosabel Lasarte baserriko angiozartarrak biaietan lehen saria lortu zuen Oñatiko ferrian Arreikotxo baserriko Jose Mari Altunaren aurretik. Behi gaztetan (2-4 urte berriz, Luis Gorosabelek lehen eta bigarren sariak eskuratu zituen eta behi nagusietan bigarren sailkatu zen.

❑ **Matinala**
Fievel va al oeste filmea eskeiniko da matinalan, igandean, urriak 11, goizeko 11 t'erdietan Novedadesen.

TOKI-EDER Taberna

Pintxoak eta eguneko bazkariak
Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84


HARATEGIA

ANTIA

URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, unxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09




POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51



Mendiko medikuntza

Pol-Pol Mendizale Taldeak eta Gipuzkoako Mendi Federakundeak Mendiko Medikuntza eta Sorospinari buruzko II. Ikastaroa jarriko dute martxan urritik abendura UNEDen.

Klaseak astearte eta ostegunetan arratsaldeko 8etan izango dira eta nagusiki Goi-mendiko Eskolako Monitore, mendi elkarte-etako alpinista eta mendizale, suhiltzaile eta Gurutze Gorria zein DYAKo mendiko unitateei zuzendurik daude.

Urriaren 27tik abendurak 17ra bitartean 15 ikastegun izango dira. Egunero ordubeteko hitzaldia

emango da, ikusentzuteko batekin lagunduta eta ondoren orduerdiko galdera-erantzun saioari ekingo zaio, adierazitako gaien sortutako zalantzak argitzeko.

Parte hartzaileek diru kopuru bat ordainduko dute ikastaroaren kostuari aurre egiten laguntzeko eta Mendi Federakundeak elkarte bakoitzeko bi lagun subentzionatuko ditu asko jota. Ebaluaketa gaintzen dutenei mendiko medikuntza eta sorespeneko diploma emango zaie.

Plaza kopuru mugatua dagoenez (100 plaza), aukeraketa inskripzio ordenaren arabera egingo da.

Txinpartak

✓ Pasa den irailaren 4ean Gasteizen hil zen **Santiago Iñurrategi Garitanoren** oroimenezko meza izango da datorren urriaren 18an eguerdiko 12 t'erdietan Monja Zaharretan.

✓ **Herri Batasunak** dei egiten du datorren astelehenean, hilak 12, Donostian eguerdiko 12etan burutuko den Independentziaren aldeko mitin nazionalen parte hartzeko.

✓ **ASKE** astialdi taldeko ekintzetan parte hartu nahi duten 7., 8. eta BUP/FPIp 1.go mailako neska mutilei larunbatean, hilak 10, arratsaldeko 4retan Mariaren Lagundiko gimnasia joateko dei egiten zaie.

✓ **Pello Alberdi** elgetarraren margo erakusketa ikusgai izango da Iruñako Aurrezki Kutxa Munizipaleko aretoan datorren urriaren 25ra arte.

✓ **Aranzadi Ikastolan** 749 ikasle ari dira O.H.O.ko maila ezberdinetan ikasten eta ez 973, aurreko astean jarri genuen bezala.

✓ **Aranzadi Ikastolak** Matxiategin duen ikastetxeko patioa kirola egiteko erabili ahal izango da astebukaeretan.

✓ **Nafarroa Oinezera** joateko autobusa antolatu du Euskal Herrian Euskaraz taldeak. Irteera goizeko 8etan izango da igandean Beheko Estaziotik eta itzulera gaueko 10etan. Prezioa 1.200 pta.koa da eta interesatuek Arrano tabernan eman dezakete izena.

✓ Azken egunotan izandako euri jasen ondorioz **Osakidetza** Osintxun etxeko ura ez edateko gomendatu du.

Araba
Etorbidea, 4
20500
ARRASTAE

AHIZKE



79 01 32
79 65 54

AHIZKE-CIMEk bere MEDIAKETAren atek zabaltzen dizkio bailara osoari. Baliabide-gela honetan, norberak aukeratutako hizkuntza (alemana, frantsesa edo ingelesa) landu ahal izango da autonomia osoz, bakoitzak bere kasa.

Egunero, 5etatik 7etara, asteazkenetan izan ezik, ZABALIK.

PREZIOA: 2.000 pta. urtean.
HASIERA: urriak 15.

Pasa zaitez AHIZKE-CIMetik eta eskatu MEDIAKETAri buruzko informazio zabalagoa

ezpeleta
etxea

Harizko eta kotoizko
goimalako izara eta mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g - Tfnoa: 76 05 01



Santa Ana

Intxaurpean meza ematen zuten

Santa Anako ermitari ikustaldi bat egiten badiogu, idazki pare baten Borjako Frantzisko Doneak bere lehenengo meza hor eman zuela adie-

raziko digute; hori 1.551ko azaroaren 15ean gertatu zen.

Badago euskaraz, erdaraz eta latinez idatzitako beste bat ere pulpitoan zu-

latuta eta, honek dioenez, Gandiako Dukea zen Frantzisko done berak 10.000ko talde haundi bati hitzaldia egin omen zion pulpito horretatik meza ondoren.

Izagirretar Fernan Martinez Bergarako alkatea zen 1.504 eta 1.505 urteetan. Jaun honek obra batzuk bere kontura ordaindu zituen herrian. Tartean batzuetan modu honetakua izen zen: "jendea hobeto hitzaldian egon dadin, Meza berriak ematen diren Errotaldeko intxaur inguruan sei haritz landatu zitatzela agindu zuen".

Ermitak hiru aldare ditu. Erdikoan Amabirjinaren errenazimendu estiloko zurezko irudi egoki bat dago; eserita, eskuak errezaizteko moduan batera zuzenduak. Albora, San Joseren irudi txiki bat ere badago. Margotutako 22 koadro daude, baina, ni egon nintzanean behintzat, ez ziren ondo ikusten, argi gutxi zegoelako eta oso gora ipiniak gainera.

Berriotxoatar Balendin Doneak egindako konfesionario bat ere badago. Bere aita arotza zen, eta Santa Anako kontearentzat lan egiten zuen.

Imanol Sorondo

IZARHOTZ

IZOKIAK

IZOKIAK

Barrenkale 10, Tfnoa: 76 18 22

AGOITZ
Tapizdenda

San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 11 58
BERGARA

ARRANO



Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA



Gaspar

Jatetxea, Txokolategia,
Self Service-a

Barrenkale 31 Tfnoa: 76 20 02 BERGARA

- Nola erabaki zenuen alde egitea eta zergatik Venezuelara?

- Eskolako lagun talde bat mugitzen hasi ginen ikasketak amaitu ondoren. Estatuan zeuden ikastaroak oso garestiak ziren eta Sudamerika aldean zerbait zegoen bilatzen hasi ginen. Hasieran Kubara joan nahi genuen, zine eskola oso prestijiosua dagoelako han baina oso zaila da sartzea eta Caracasen 3 ikastaro egitea erabaki genuen.

- Eta berehala lanean hasi...


- Bideo formatoan telebistarako pelikulak egiten hasi ginen, presupuesto gutxiarekin eta aktore txarrekin. Gero publizitate munduan ere probatu nuen hango enpresa batekin. Nik kamara hartu eta agintzen zidaten lekuetara joan beharra neukan. Venezuela eta Kubak koproduzitutako filme batetan ere hartu nuen parte...

- Kulebroirik ez?

- Ba ez dut horrelakorik egin. Ikusi ditut zelan grabatzen diren eta egia esan ez dago diferentzia handirik guk grabatutako pelikula horren eta kulebroien artean.

- Eta nola esplikatzeko da lortu duten arrakasta?

- Ez dakit, han ere aluzinatu egiten dute hemen hain ezagunak izateaz. Eta hori ikusita, produkzio gehiena hortara bideratzen da



Asier Altuna "Kixi", Venezuelatik etorri berriarekin:

"Medio gutxiarekin eta presaka grabatzen da Venezuelan"

Andoaingo Bideo Eskolan Imajin Ikasketak burutu eta hainbat lan egin ondoren Venezuela aldera joan ziztaigun Asier Altuna «Kixi» bergararra. Han urtebete eman du eta, Sudamerikatik bueltan, guztiz aberatsa izan zaion esperientzia kontatu digu.

eta ordu guztietan hango telebista kate ezberdinetan jartzen dituzte. Askotan ordu berdinean programatzen dira kate danetan eta horrek mesede gutxi egiten die ikusleei.

- Lanerako presta-

kuntza ona al da?

- Material eta tekniko aldetik ondo gertatuta daude baina diru gutxi dago, hemen bezala. Dena den, nahiko aurreraturik daude mundu horretan eta kanpotar ugarik egiten dute lan. Publizitatea ere asko

egiten da eta gauzak askoz ere gehiago zaintzen dira spotak errodaterakoan. 20 segunduko anunzio bat egiteko igual astebete ematen dute. Kreatibitatea asko lantzen da eta errerealizazio aldetik oso polita. Baina dena gezurra...

- Lana alde batera utziz, otsailaren 4ean izandako Estatu kolpea nola bizi izan zenuten?

- Justo egun horretan Manu Muniategiandikoe-txea ere gurekin zen, eskaldun kolonia majoa geunden orduan. Tiroteoak, bengalak... izan ziren gure etxe ondoan eta presidentea telebistan irten zen lasaitasuna eskatuz. Hurrengo eguneko eguerdirako dena normalizatu zen. Militarra gartzelan egon arren jendeak oraindik apreziatzen du eta Carlos Andres Perez presidentea ez da beren gustokoa.

- Nolakoa da ba hango egoera?

- Venezuela aberatsa izandakoa da baina derrepente diru barik geratu dira, krisi larrian daude eta miseria handia dago. Langileek oso gutxi irabazten dute eta prezioek gora egin dute izugarri urtebetean...

- Bukatzeko, aurrera begira planik bai?

- Lehenbizi atsedena hartu eta gero ikusi behar. Gustatuko litzaidake honelako esperientzia errepikatzea, asko ikasten da eta.

iRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia

San Pedro 11
☎ 76 51 65



u m e l a g a
JATETXEA

San Antonio 5 BERGARA
Tfnoa: 76 20 21

ARREGI
Eraikuntza
materialeak

Biltegia Tellerian, Tfnoa: 76 27 93
Labegaraita Auzoa



Jaialdietarako toki faltan

Azkenaldi honetan gero eta oztopo gehiago sortzen ari dira Bergaran ekitaldi handiak antolatzeko. Frontoia izan da aspaldi honetan gehien erabili izan den lekua, baina orain ezin da bertan jendetza handia bilduko duen inolako ekintzarik egin. Orain dela urtebete eskas Txibisto itxi zen eta urte gehiago dira Irala zinema itxi zenetik; ez dago, beraz, leku egokirik ekitaldi handi bat antolatzeko.

Frontoia

Frontoiarekin dagoen arazoa ez da oraingoa. Aspalditxo hasi zen Ertzantza abixuak emanez ezin zitekeela frontoian ikuskizun handirik egin, ez zegoelako jendetza handiak biltzeko prestatua. Oraintsu arte, ordea, ez zaio kontu honi arreta handirik egin eta normal jarraitu dute kontzertuak, bertso jaialdiak, etabar antolatzen, duela hilabete bat arte. Irailaren

hasieran Jardun elkarteak bertso jaialdi bat antolatu zuen eta frontoian egiteko baimena eskatu zion udalari.

Udal agintariek, ordea, ezezkoa eman zieten JARDUNekoiei, adieraziz ezin zela frontoia horrelako ekintzatarako erabili. Segurtasunaren aldetik dator arazorik handiena. Bergarako frontoia ez omen dago behar bezala prestatua jendetza handia bilduko duen ekintza bat bertan egiteko.

Ez dago emerjentziarako irteerarik, ezta argirik ere; ez ditu, beraz, legeak esijitzen dituen baldintzak betetzen.

Askok eta askok buruan duten galdera, ordea, zera da: zergatik jokatu daitezkeen pilota partiduak eta ezin den bestelako ekitaldirik antolatu. Eusko Jaur-laritzako Barne Saitetik adierazi digutenez kontzertuak, jaialdiak eta horrelako ikuskizunak antolatzen diren bakoitzean

baimena eskatu behar zaio Barne Saileko Joku eta Ikuskizunen departamentuari. Departamentu honek ekitaldia hartuko duen lokalak betetzen dituen baldintzak aztertzen ditu, eta legearen barne badaude baimena ematen du, baina lokalak ez baditu betetzen ezin izango da bertan ekitaldirik egin.

Frontoi batetan pilota partiduak jokatzeko, ordea, ez zaio Barne Sailari baimenik eskatu behar, beraz, ez dago partidua debekatzerik, nahiz eta frontoia legez behar diren baldintza guztiak ez bete.

Polikiroldegia

Herri askotan polikiroldegia erabiltzen da kontzertuak eta jaialdiak egiteko, baina Bergaran ez da hau oso irtenbide egokia. Alde batetik, herri erditik urruti samar dagoelako, baina badago beste arrazoirik ere.

Luis Abajo Kultur Taldeak, Jaiak eta Gazteria Batzordeko buruak adierazi digunez, "*Polikiroldegiko zorua egurrezko parketa da, eta jendea bertan sartu ezkeror erabat hondatuko litzateke. Kalteak egon ez daitezkeen modulo berezi batzujarri behar dira zoruan. Hala ere arazorik handiena kirolzaleei egiten zaientzara da.*"

Bergarako polikiroldegia bete-betean dabil, eskolotako umeak direla eskubaloia dela, saskibaloia...

ELKAR

Harruriaga 1, Behea
Tfnoa: 76 58 16

Fotokopiak koloretan
Enkuadernazioak
Jendearentzako faxa
Plastifikazioa
Planoen kopiak

Kailash

Zentro Esoterikoa

Parasikologi Zientzien Institutu
Hispano Amerikarrean diplomatutako
profesionalak,

• Tarot-a • Hipnosia • Erresonantzia
Eskaerak: Tfnoa: 76 01 31 (Iris)

loia dela... Beste edozein ekintzatarako prestatu behar den bakoitzean bezperan jarri behar dira aipatutako modulo berezi horiek. Gero guztia kendu eta kirolerako prestatzen denerako egun pare bat behar izaten dira. Azkenean polikiroldegirik gabe geratzen dira kirolzaleak egun pare horretan".

Beste lokal batzu

Ekitaldi handiak ez direnean, hau da antzerkiak, abesbatzak, musika eskolako kontzertuak, etabar. antolatu behar direnean, badaude hainbat leku erabilgarri. Mariaren Lagundian dagoen antzokia dugu horietako bat. 700 bat lagunentzako lekua dago eta monjak beti izan dira uzteko prest. Badu, ordea, arazo bat, 4 pisu igo behar dituzte ikusleek antzokira sartzeko, eta hori eragozpen handi samarra da batzutan.

Zabalotegiko dorrean ere badago antzoki bat, baina nahiko txikia da, 200 bat lagun baino ez dira bertan sartzen.

Novedades zinea ere hortxe dago herri erdian. 450 bat lagunentzako lekua dago eta egin ohi dira bertan antzerkiak, bandaren kontzertuak, etab. Hala ere hainbat ekitalditarako txikia suertatzen da.

Kontzertu klasikoak, abesbatzak eta horrelakoak egiteko elizak ere erabili ohi dira. San Pedro eta Santa Marinako elizez gain

Seminarioan dagoen Dominikoen eliza ere kontutan hartzekoa da. Eliza horretan ez dago dagoeneko apaizik, baina Apespikutzak ez du baimenik ematen antzerkiak eta antzerakoak egiteko.

Kontzertuak, abesbatzen ekitaldiak eta horrelakoak bakarrik egin daitezke bertan.

Argi dago arazoa jendetza handia biltzen duten ekitaldiekin sortzen dela,

besteetarako nahiko zabala bait da lokalen eskeintza.


Irtenbideak

Luis Abajok adierazi digunez, Udaletxeak ahalik eta azkarren konpondu nahi du frontoiarekin sortu den arazoa.

Momentu honetan in-forme juridiko bat aginduta du eta frontoia ekitalditarako erabiltzeko moduan jartzea noren erantzukizu-

na den erabakitzen denean, martxan jarriko dira egin beharreko konponketa guztiak.

Luis Abajok ez du uste datorren urtera arte egin da egongo denik, beraz, aurtengo Udazken Kulturalaren barne egingo diren kontzertu guztiak Elizatan egin beharko dira. Frontoian egin ohi den Gabonetako Kontzertua, aurten San Pedroko elizan egingo omen da.



Irala: amaigabeko kontua

Askok kontutan izango duzue Irala zinea. Duela 7 urte itxi zen eta geroztik ez da ezertarako erabili. Iralak 2000 lagunentzako lekua zuen eta oso aproposa zen hainbat ekitalditarako, bai har zezakeen jende kopuruarengatik, eta baita herri erdian dagoelako. Irala zinea Irizar eta Quemadaren eskutan dago eta badirudi ez dutela saldu nahi, are gutxiago administrazioari. Udaletxeak ez die inoiz eskeintza zehatzik egin, baina bi parteen artean kontaktua izan denean Iralaren jabeek garajeak eta lokal komertzialak eraikitzeke nahia azaldu izan dute. Udaletxean, ordea, ikuskizunetarako lokal bezala dago erregistratua eta ez dago aldatzeko inolako asmorik, beharrezkotzat jotzen bait da Irala ikuskizunetarako mantentzea.

Zure
konfidantzako
denda



Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Foto Sistema

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

Jendeak alkohol gehiegi edaten al du?



Sonia Gimbert
17 urte, ikaslea

Bai, jaietan batez ere. Neretako gutxiago edan beharko genuke guztiok.



Joakin Etxaniz
30 urte, langabetua

Nik uste dot gazteek ikasi dutela eta jeisten doala. Sentsibilitate haundiagoa dago.

**ETXE-
-AUNDI**

**Negozio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI



Mariasun Udabe
64 urte, tabernaria

Nik tabernia daukat eta ez dakit zer esan. Gazteek gehiegi beharbada baina nagusiek bere neurrian.



Iñaki Jauregi
17 urte, ikaslea

Bai asko. Astebukaeretan ez hainbeste baina jaietan eta egun berezietan gehiegi.

Donostiako ERREKADISTA

**Egunero-egunero
Donostiara bidalak**

Enkarguak: Itxasmendi
tabernan ☎ 76 50 64



BERTSO AFARIA

ANDONI EGAÑA eta JON SARASUAekin

NON: Altsasu Elkarte

NOIZ: Urriaren 24an

ORDUA: 20.30ak


PREZIOA: 2.500

IZEN EMATEA: JARDUN elkarte (Errotalde Jauregian edota 76 03 97 telefonora deituz

EPEA: Urriak 19a baino lehen

AUTOBUSA doan egongo da joan-etorria egiteko

ANTOLATZAILEA: JARDUN elkarte



Musika: bizitzaren filosofia

Orain hurrengo zenbait lagun elkarrekin bildu ginen basoerdi batzuk joteko. Ohizkoa denez, tokia dela eta arratsaldeko gaia musika suertatu zen.

Hainbat pertsona desberdinen artean, musika desberdinei buruz hitzegin zen: rocka, popa, bluesa eta abar; musika desberdinak, filosofia desberdinak.

Honela, bapatean musika moeta bat atera zen gai berezi bezala eta bere barnean pertsona konkretu bat, Silvio Rodriguez, musika eta filosofia. Aldarrikapena, askatasuna eta pertsonak eta mundua maitatzearen filosofia.

Gai konkretu bat aurkitu genuen denon artean, musikari honen musikari buruz hainbat eritzi zeuden, baina denok geunden ados bere filosofiarekin, maitasunaren filosofiarekin. Silviok ez du musika bakarrik idazten, baizik eta ideologia ere bai. Sentimenduen eta arrazoiaren arteko bere eritzi hori musikaren bitartez kanporatzen du, baita lortu bere hitz horiek besteen bihotz eta buruetan sartzea ere.

Bere baitan sartzan gaitu, bere barnea erakusten eta hortik mundu osoa, mundu ona eta mundu txarra begi hobe batzuek begiratzen. Gauza onak, zailagoak ikasten, sakonki biziak eta gauza txarrak, egunero inguruan dauzkagunak, sakonki barkatuaz.

Benetan diotsuet, entzun ezazue.

Nora Askargorta



Garrasia eta negarra

Ospatuko al ditugu Nazien konzentrazio-kanpoen V. mendeurrena? eta Hiroshima eta Nagasakikoarena? eta Vietnam, Palestina e.a. etakoak?

500 urte.

500 urte "aurkikuntza" haundia izan zenetik. Zenbat kultura suntsitu? Zenbat hilketa? Ehundakak?, milakak, milioiak? Zergatik 500 urteen ospakizun hau?

Bada oraindik bertako kulturaren baten hondarririk. Bizirik dirau herri batzuen memoriak. Beste batzuk, ordea, desagertuta daude.

Zerbait geratzen da.

Baina 5 mendetako mesprezuek zapalduta.

Geure, denon, anai-arreben zainetan sustraitu den mesprezua.

Hemen edo Amerikan, berdin da. Zeinek daki orduko zientzilarien berri, hauen aurkikuntza eta asmakizunen berri? Zeinek ezagutzen ditu orduko sendagileak eta euren sendagaiak? Euren jaungoikoak eta apaizak?, edo euren idazleak eta hauen lanak?

Superstizioa, folklorea, kondairak. Mesprezuaren antza duten hitzak. Baina oraindik zerbait geratzen da.

Bizirik iraun behar du sarraskiaren oroitzapenak. Oihu eta negar bihurtu behar du.

Eta mesprezua ere oihu eta negar bihurtzen denean, orduantxe amaituko da munduan zehar, behin eta berriz errepikatzen den historia hau.

Nora. S. Palmitano

Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.

Tfnoa: 76 43 07

IBARGUREN PENTSUAK

Biona pentsuen biltegia.

Bioter produktoak eta haziak.

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

LXUKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62

BERGARA

MUGICA

Burdinaki denda

Bidekurutzeta 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

ANDUZU

ERAIKUNTZA MATERIALEN BILTEGIA

Azulejo erakusketa
 • Onduline • P.V.C •
 Blokeak • Pinturak •
 Adreiluzko botelilatokia •
 Mailazua • Garraioak egiten ditugu •

Telleriko Lana Pol. Ind. San Juan
 C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41
 Faxa: 76 00 58 BERGARA



ROIGE

□ Txomin Bengoari omenaldia

Joan den larunbatean Agorrosinen jokaturako Bergara eta Eskoriatzaren arteko futbol partiduan, **Bergara Kirol Elkartek** eta **Udalak**, 15 urtez taldeko jokalaria izan den **Txomin Bengoa** omendu zuten. 30 urterekin **Txominek** futbola uztea erabaki du taldeko kategoria guztietatik pasa eta azken denboralditan jokalaria garrantzitsuenetarikoa izan ondoren, **Txominek** zuen guztia ematen baitzuen zelaian. Gainera, izan dituen entrenatzaile guztiek indarra eta kemena ezaugarri dituen jokalaria honengan konfiantza osoa azaldu dute urtez urte. Larunbatean, esan bezala, ondo merezitako omenaldia egin zitzaion; Kirol Elkartek eta Udalak trofeo bat eta plaka oroigarri bat eman zioten eta jokalariek, berriz, Jon Andoni Urisabel jokalaria eta margolariak egindako karikatura bat. Eta festa osoa izateko, Bergarak etxean lortzen zuen lehen garaipena eskuratu zuen, Eskoriatzari 4 eta 2ko emaitzarekin nagusituz. Golak Fran, Zelaia eta Gomez de Segurak (2) sartu zituzten eta orain bergararrak sailkapeneko 12. postuan dira. Astebukaeran Trintxerperen aurka jokatuko dute.



ROIGE

HAGIN KLINIKA

Idoia Iriarte Irueta

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65

Amets




Zerbitzuak haundiagotuz
HERGO karabanen
 banatzailea

Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50

AMETS Tailerrak

Berezano Auzoa • OÑATI



□ **Bizi Alternatiborako kartelaren egilea**

Iñigo Martínez «*Memi*»k irabazi du Drogomenpekotasun Prebentziorako Udal Zerbitzuak **Bizi Alternatiboaren VI. edizioa** ospatzeko antolatutako kartel lehiaketa. Parte hartu duten 6 partaideek 7 lan aurkeztu dituzte eta epaimahaiaren iritziz *Memirena* izan da lanik onena eta ihardunaldi hauen helburura gehien hurbildu dena. Azaroaren lehen egunetan ospatuko diren ihardunaldiak iragartzeko erabiltzeaz gain, *Memik* 50.000 pta.ko saria eskuratuko du. Ezin izan dugu kartela orrialde honetara ekarri jadanik inprentan zegoelako baina datorren astetik kalean ikusteko aukera izango duzue.


□ **Zorionak!!**

Joan den irailaren 26an **Alberto Etxeberria** bergarra eta **Pili Muñoz** ordiziarra ezkondu zitzaizkigun Zumarragako Antigua elizan. Elizkizuna arratsaldeko 6etan izan zen, eta ondoren 200 gonbidatu inguruk afari ederra egin zuten Etxeberria Jatetxean. Ondorengo dantza eta juerga ere ez ziren makalka izan. Lerro hauetatik ezkonberriak zoriondu eta bizimodurik emankorrena opa nahi diegu.



Zertan dihardute ba?

ELKORO-ETXANIZ



Jokin Etxanizek aurrelari onenarentzako saria jaso zuen pasa den astean Arnedoko Txapelketan eta Aitor Elkorok debutatu egin zuen berriz ere profesionaletan asteartean 22 eta 21 irabaziz Gernikan.

FELIX ASKASIBAR



Lanbide Herziketa Eskolan Gizarte klaseak ematen dituen 37 urteko irakasle bergarra honek Anaje Narbaizak Udaletxean utzitako zinegotzi postua beteko du aurrerantzean.

iKASLE
liburudenda - Fotokopiak - Fax zerbitzua
 Dr. Fleming. Tfnoa: 76 28 05 BERGARA

Zatoia
 Boutique
 BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14

Umore giroan

Karretillia gitxi
beteta

STAR fabrikako biar-
giña zan "Balbotin". Egun
baten, prisaka, pieza
mordoxka bat nikelera
eruan biar ziran. Bazaro-
iezen karretilletan. "Bal-
botin"ek ez zeban geixegi
bete bere karretillia. Kon-
turatu zan ugezaba eta
esaten detsa: - I, Balbotin,
ori bete leikek geixago.

Balbotinek berialako
baten:

- Baitxa zapatuko so-
bria be!

* * *

Belarritxakuak
dixukala?

Beste beñ STARen
bertan, flejez beteta etoirri
zan kamioi bat ustutzen
zebizen biargiñ talde bat.
Danak, gitxienez bi bulto
aundi zaroiazan karreti-

lletan almazenera. Gure
"Balbotin"ek baiña, bat
bakarra zaroian. Konturatu
da ugazaba eta esaten de-
tsa:

- Ezin ditzuk bi eruan
ala?

- Zer ba, belarritxakuak
dira aia?

* * *

Amar milloiduna Elgeta
kaletik gora

"Balbotin"i galdetu ze-
tsen beñ:

- I, "Balbo", bost milloi-
kin bizi leikek?

- Etxajkitxat. Nik daki-
txena dok, lengo egunian
amar milloidun bat eruan
zebela Elgeta kaletik gora
kanposantura.

Pedro Zelaia

Antzinako kontuak

Txandrua, lapur ospetsua

1921eko udan «Los tres
tristes trogloditas» bezala
izendatuak izan ziren T. Aran-
zadi, J.M. Barandiaran eta E.
Eguren Bergara inguruko
mendietan ari ziren trikuharri
bila. Hamaika egun iraun zuen
espedizioan Elosua-Plazentzia
deituriko eremu megalitiarra
aurkitu zuten. Aurkitu eta mia-
turiko trikuharrien artean bat
Atxolin deitzen dena da. Triku-
harria industen ari zirela
Txandrua lapurraren historia
jasotzeko beta izan zuten.

Txandrua lapur arrunt bat
baino gehiago izan zen; izan
ere, gure honek, bere koadri-
la, bere ezkutulekua etabar zi-
tuen. Leku apropos batetan
zeukan kokatua bere «koartel
jenerala»: Atxolingo harkaiz-
pean zegoen borda batetan,
hain zuzen ere. Lekuak baldin-
tza egokiak eskaintzen zi-
tuen «abentura» zalea zen gi-
zonarentzat: herrietatik urrun,
leku itxia («cerradísima selva»
hirukotearen esanetan), pasa-
bideetatik (Soraluzetik Azkoi-
tira) hurbil, e.a.

Behin, Txandrua eta bere
«lankideak» Azkoitiko Santa
Kruz komentura sartu omen
ziren. Lapurreta ongi burutu
nahian edo, bertoko lekaima
edo moja guztiak esku eta oi-
netatik loturik laga zituzten,
hala ere, gaisorik oheratua ze-
goen moja bat libre uztea
agindu zuen hain bihotz gaiz-
tokoa ez zen edo nahiko ergela
zen Txandrua jaunak. Baina,
hara zer nolako zorigaiztoa!
Gure lapurrak bereak egiten
ari zirenean komentuko ezkillak
jo eta ke hasten dira. Handik
gutxira jendez inguratutik ze-
goen Santa Krutzeko komen-
tua. Txandruak ez zuen sines-
ten gertatutakoa: hainbat gau
kandelapean pasa lapurreta
prestatzeko eta gero hau!

Izan ere, Txandruak bere
bihotz errukitsuari jarraitu zi-
lako atera zitzaion gaizki lapu-
rreta: gaisorik zegoen mojaran
ohearen ondoan omen zegoen
kanpaia jotzeko soka.

Xabier Larrañaga

MARGA JANTZIAK


San Pedro, 22

Bergara

MODA GUZTIA
92 / 93 UDAZKEN
eta NEGUKO KOLEZIO
BERRIA


BAITA
FESTARAKO
JANTZI EDERRAK ERE

AZKEN MODARA
ETA PREZIO
HOBERENETARA...
MARGAn



ABDON JUARISTI
PINTURA
KLASEAK


☎ 76 47 98 (12.00 - 14.00)



PAPERDENDA

Marcó

Bidekurutzeta, 44
Tel. 943 / 76 05 54
Fax. 943 / 76 05 54
20570 BERGARA



PILAR ETXEGIAK jaso du aste honetan ASKASIBAR JATETXEAK emandako saria.



Hurrengo Galde Debaldeko saria ARGAZKIk emango du.

Galde Debalde

Aste honetako galdera:


Ameriketara joandako bergrarren artean pertsonaia polemikorik egotekotan hori Domingo Martinez de Irala dugu. Gaur egungo ikuspegitik, aurkikuntza-konkista-kulturen suntsitzea eztabaida pil-pilean dagoenean, ez da erraza orduko jokaerak ulertzea, baina Irala polemikoa izanda ere bere herrian monumentua eraiki zaion herritar bakarra da.

Cabeza da Vaca famatuaren aginduz 1540 urtearen inguruan Irala Bolivia eta Paraguay bitartean dagoen El Chaco lurraldera joan zen, bertan, inguruok menperatu ondoren, hiri bat sortuz.

ZEIN HIRI SORTU ZUEN IRALAK 1.543. urtean?



OHARRA: Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke



**Pintxoak, eguneroko menua eta karta bereziak ditugu
Betiko eta oraingo sukaldaritza**



Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



GALDE DEBALDE

PILAR ETXEGIA

Aurreko GALDE DEBALDEko erantzun zuzena hau zen: Mexiko hiriko ikastetxearen izena **COLEGIO DE LAS VIZCAINAS** zen.

PILAR ETXEGIA izan da aste honetako Irabazlea.
ZORIONAK !!


Eta besteok animatu, eta erantzuna eman aste honetako galderari!

HERRAN ETXEA

Sukaldeko altzariak
Matxiategi, 4. 76 37 53

**Elektragailuak, TB,
bideoak, HIPI
aparailuak.**

Matxiategi, 3. 76 12 22



JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16

B.K.ko Eskubaloi sailak astebukaeran hasiko du liga

150 lagun inguruk egiten du eskubaloia Bergaran

Bergara Kirol Elkarteko eskubaloi sailak 5 talde izango ditu hastear dagoen 92-93 denboraldian: kadete neskak eta gazte neskak (Iñaki Cantero entrenatzaile), kadete mutilak (Xabier Lijo), gazte mutilak (Juan Luis Ruiz), eta senior gizonetzkoak (Jose txo Muniategiren ardura-pean).

Senior gizonetzkoek larunbatean arratsaldeko 6etan jokatu dute ligako lehen partiduan Arrasaten bertako taldearen aurka. Jose txo Muniategi entrenatzailearen hitzetan, "gure asmoa sailkapenaren erdian mantentzea da, talde oso gaztea baitugu eta denboraldia zaila izango da. Beteranoek alde egin dute eta jokalaririk zaharrena 26 urtekoa dugu. Gaitzetzekoak 19-21 urte tartean daude".

Hauek dira plantila osatuko dutenak: Atezainak Edu Iñarra, Xabier Elkoro, Igor Basauri eta Edu Orgaz, eta jokalaririk Aitor Ibarra, Aritz Aranguren, Felix Eguren, Aitor Cid, Iosu Zeziaga, Unai Lonbide, Jose Ramon Iturbe, Zigor Ruiz de Egin, Xabier Lijo, Aritz Beistegi eta Eugenio Cabo. Senior taldeak

urritik martxora, 12 talderi aurre egin beharko die lehen territorialean eta igoera lortzekotan 3. mailan jokatuko lukete datorren denboraldian.

Eskubaloi eskola

Aurtengoarekin 6 urte beteko ditu Josetxok taldeko entrenatzaile modura. Milioi bateko aurrekontua ez da nahikoa bere ustez; "urteroko arazoa da eta

horrekin konpondu beharra daukagu. Bijaiek koxteetan egiten ditugu eta gaztetxoak beren gurasoekin joaten dira.

Entrenadoreek egiten dugu lan guztia eta norbaitek kale egin ezker

asko igartzen da, asko".

Aste honetan bertan sekzioak martxan jarri berri duen eskolak lehen urratsak eman ditu. "Ikastetxe ezberdinekin kolaboratuz, 12 urtetik 13 urtera bitarteko 70 neska-mutil inguru hasi dira eskubaloian jokatzen eta edade horretan talde gehien dituen sekzioa gara. Kirol alderditik ondo gabiltza baina estruktura aldetik kolaboratzeko prest dagoen jendea falta zaigu".

Hor beraz, Josetxoren eskaera.

Eskubaloi sailaren helburu nagusia gazteekin lan egin eta helduagoi eustea da



Josetxo Muniategik zuzentzen duen eskubaloi talde nagusia.

BOLINTXO

Kirola eziteka behar den guztia

Ibargarai 10,
☎ 76 38 32

MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea

Bidekurutzeta 29,
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75

AGIRREBEÑA

Oinetakoak
Erropa denda
Lenzeria

Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29



Herriko Eskolako umeak. 1.924.

A ze kuadrila elkartu zuen Don Mariano Matxo irakasleak bere inguruan, Inazio Aristi argazkilaria makinari noiz sakatuko zai. Erretratuan neskak ere badauden arren, jakinekoa denez, garai hartan neskak eta mutilak bereiz ibiltzen ziren eskolan eta argazki honetan agertzen diren neskatilak erretraturako elkartu zirena dira. Hori dela eta, gure informatzaileak ez digu beren izenik eskuratu ahal izan. Hona, bada, mutikoak zeintzu ziren hasierako ilaratik hasita, ezkerretik eskumara:

Lehenengo ilaran: Julio Simon, Amancio Frade, Sebastian Latorre, Juan Mari Jauregi, Anastasio Galarreta, Ricardo Villar, Jesus Okina, Juan Larrañaga eta Pako Gantxegi.

Bigarren ilaran: Simon Arrieta, Natalio Juaristi, Juan Larrañaga, Felix Aranburu, Antonio Oñate, Joxe Benta, Mariano Matxo, Mariano Matxo aita, Arturo Matxo, Juan Urzelai, Pako Jimeno, Luis Zegarra, Pablo Aretxabaleta eta Pako Zumaketa.

Hirugarren ilaran: Joxe Mari Jauregi, Bautista Salinas, Felix Garitano, Juan Larrañaga, Martin Ena, Esteban Altuna, Eusebio Igarza, Felix Azkarate, Pedro Laskurain, Felix Laskurain eta Jose Maria Jauregi.

Laugarren ilaran: Jesus Gantxegi, Julian Etxaniz, Pedro Osoro, Iganacio Arostegi, Pedro Urzelai, Antolin Zegarra eta Luis Oñate.

Azkenengo ilaran: Joxe Mari Bolante, Zezilio Irizar, Martin Gallastegi, Luis Gisasola, Donato Gallastegi, Tomas Lamariano, Leon Azpiazu eta Pedro Ormazabal.

Estepan Plazaola

Argazkia: Inazio Aristirena, Natalio Juaristik utzia

PRiMi

- Mariskoak, arrain fresko eta izotuak .
- Etxerainoko zerbitzua

Merkatuan Tfnoa: 76 15 90
San Antonion Tfnoa: 76 21 08
Matxiategin Tfnoa: 76 21 91



PortuGas

NATURGAS, S.A. enpresaren kolaboratzaile

Gas, berogailu eta
aklimatazio
lanetarako
proiektuak eta
instalazioak

ALEX GARDOKI

☎ 76 27 17

ETXEBIZITZA

Lokal bat alokairuan Iri-
zar 2an.
☎ 76 13 32 / 76 25 97.

Zaragozan pisu bat osa-
tzeko neska euskaldun
bat behar dugu.
☎ 75 19 98 / 79 28 71.

Bergaran herriaren erdi-
aldean ileapaindegia
alokatzen da. ☎ 76 16 17.

Taberna alokatuko nuke
☎ 76 53 73.

Pisua salgai Bidekuru-
tzetan. (5.000.000).
☎ 76 09 36.

Artekalen pisua salgai
☎ 76 55 63. Gauetz.

Garajea salgai Espalo-
ian. ☎ 76 01 95.

Pisua hartuko nuke alo-
kairuan. ☎ 76 03 31.

Amaran (Donostia) etxe
bat betetzeko bi neska
nahi ditugu. ☎ 76 34 22.

Espalolan garajea salgai
☎ 76 23 27.

Pisua salgai Martokuan:
bi gela, saloia, sukaldea,
bainua eta trasteroa.
☎ 762402 / 94-658 24 68.

Garajea salgai Santa
Marina inguruan.
☎ 76 32 70.

Antzuolan etxebizitza
salgai Ibarrodo 4an.
☎ 76 62 09.

Pisua hartuko nuke alo-
kairuan. ☎ 76 03 31.

SALDU-EROSI

Oinarrizko Dibujo Tekni-
koko klaseak hartuko ni-
tuzke. ☎ 76 31 55.

Urezko berogailuak eta
berogailu elektrikoak
salgai. ☎ 76 13 60.
(16.00etatik aurrera)

SUZUKI DR BIG motorra
salgai.
☎ 76 50 67. (Ander).

1.992-93 ikasterterako,
egunero Donostilara
joan-etorria egiteko, au-
tobusa bete nahi dugu.
Interesatuta bazaude
deitu 77 00 65era.

2. eskuko paseozko bi-
zikleta bat erosi nahi nu-
ke. ☎ 76 32 70. (Idoia).

3 atedun Opel Corsa
1.300 GTa salgai (SS-X).
☎ 76 05 92 (gauetz).

Matrimonio logela bate-
ko altzariak salgai.
☎ 76 44 27 (gauetz).

Ingeles kurtso bat kase-
tetan erosiko nuke.
☎ 76 54 26.

XR 2 i kotxea salgai. 2
urte, berri-berria. 55.000
Km. SS-AG. ☎ 76 55 80.

Petrollozko estufa sal-
gai. ☎ 76 50 05.

Master System II-A sal-
gai. 6 joku eta mando bat.
Egoera onean. 25.000
pezeta. ☎ 79 06 61.

Kitarra akustikoa salgai
(15.000). ☎ 76 11 89.

Berogailu japoniar bat
salgai. ☎ 76 50 12.

Peugeot 205 XL bat
salgai. 6 urte SS-W.
☎ (945) 27 92 73 (arra-
tsaldez) / 76 05 23 (ga-
uez).

LANA

Neska behar da etxeko
lanak egiteko. ☎ 76 31 58.

Arratsaldetan galxoak
eta edadetuak zaintzen
lan egingo nuke.
☎ 76 46 90.

Emakumezko batek hau-
rrak zaindu eta etxeko
lanak egingo lituzke.
☎ 76 36 06 (Marisol).

Mutil batek kalitatezko
ilustrazioak, erretratuak,
irudiak etab. marraztuko
lituzke ☎ 76 25 59.

Etxeko lanak egin eta
umeak zainduko lituzke
neska batek ☎ 76 06 98
(Amaia).

Neska bat behar da
etxeko lanak egiteko.
☎ 76 31 58.

Neska batek etxeko la-
nak egin edota umeak
zainduko lituzke.
☎ 76 57 38.

Neska batek etxeko la-
nak egin eta umeak
zainduko lituzke.
☎ 76 45 53.

Hildakoak

Maria Pilar Arranz Olmedo
Urriak 5, 50 urte
Pedro Unzueta Unzueta "Arrekotxo"
Urriak 6, 71 urte

Jaiotakoak

Marina Retolaza Arriola
Urriak 4

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

Tximak
Ileapaindegia

Fralkozurl 3, Tfnoa: 76 56 69

JAKINA

BAINUAK • ZERAMIKA • SUKALDEAK



MANGADO
VOCHOA

ZERAMIKA ETA SANITATE GAIAK



SUKALDEKO ALTZARIGINTZA

San Lorenzo Poligono Industriala, Amillaga 10, behea. Tfnoa: 76 03 30 • Faxe; 76 02 91. BERGARA

TEMPRA STADIO



ERAKUSKETA:

Ibargarai 39
BERGARA

TAILERRAK:

Antigua Auzoa
ANTZUOLA

Autoberezi FIAT

ZERBITZU OFIZIALA